

ETXEBIZITZAK ETA DEKORAZIOA 2025



GUKA

ZURE ENTZIMERAK ALDAKETA BEHAR DU?

☎ 687 47 68 32 - ARITZ

✉ INFO@BASQUE2STONE.COM

📷 [@BASQUE2STONE](https://www.instagram.com/BASQUE2STONE)

🌐 WWW.BASQUE2STONE.COM

**BASQUE2STONE
GIPUZKOAN**

**0 KM
BERTAKO ESKULANA
OFIZINA ZUMAIAN
SAN JOSE KALEA 1**



**NEURKETA, ELABORAZIOA ETA MUNTAIEN
ZERBITZU OSOA**

**AURREKONTUA DOAN
ZURE ETXETIK MUGITU GABE**

**SUKALDE INTEGRATUA
EGITEKO AUKERA**



4-5

Mocha mousse kolorea

8-12

Urteko lorea eta landarea

16-18

Lehortu arropa

20-22

LED argiak

24-30

Lurzoruak

32-40

2025eko bost joera

44-48

Konbinatu gortinak

52-60

Bainugeletako azulejoak

64-66

Lukanak

68-76

Aurtengo sukaldeak

78-82

Alfonbra binilikoak

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea

Publizitatea:

UKT komertzial taldea

Diseinua:

Ane Azkue

Argazkiak:

Unsplash

Helbidea:

Soreasu 1

AZPEITIA

943-81 38 41

943-89 00 17

urolakosta@ukt.eus

GUKA
ZERBITZUAK

MOCHA MOUSSE, ONGIZATE SENTSAZIOA IZATEKO

Dotore eta ukitu naturalarekin, 2025eko koloreak egongeletako dekorazioa menperatuko du datozen hilabeteetan. Nola konbinatu jakin nahi baldin baduzu, hona hemen gako batzuk.



Mocha Mousse
17-1230



Pantone 17-1230 Mocha mousse da 2025. urteko kolorea. Pantone etxeak aukeratutako koloreak kakaoaren, txokolatearen eta kafearen goxotasuna transmititzen du, eta tonalitatez marroi beroa izanik, ongizate sentsazioa eskaini ere bai.

Potentzial handidun kolorea da. Izan ere, hainbat ñabardura ditu, asko lurreko tonuetan, eta edozein diseinuri eta estilon gehitu ahal zaizkio horiek. Kolore eta akabera ugarirekin konbina daiteke mocha mousse, eta aldi berean, egongelari ukitu maximalista eta klasikoa ematen dio.

- Tonu beixekin, kremarekin, arrosa argiarekin, lurrarekin edo txokolatearekin konbinatu daiteke, erosotasun eta ongizate sentsazioa azalerraz duen barrualdeari forma emateko. Adibidez, sofa beix batek, moccha tonudun gortina batzuek eta krema zein moccha koloreak konbinatzen dituen alfombra batek konbinazio dotorea eta handikeria

gutxikoa osatzen dute, baina aldi berean, indartsua bisualki.

- Diseinu koloretsuagoak eta udaberriko ukituak gus-tuko dituztenek egongelako azalera handietarako erabil dezakete 2025eko kolorea, hala nola paretetarako, sofetan edo besaulkietan melokotoi edo mostaza tonuekin konbinatuz. Halaber, bioleta edo morea osagarrietarako erabil daitezke; besteak beste, kuxinak, pitxerrak edo ar-telaren bat.

- Grisak eta urdin grisaxkak mocha mousse kolorearen dotorezia klasikoa indartzen dute. Konbinazio horiek es-tilo sofistikatudun egongela sortzen dute. Kasu horretan, gainazalik handienak urteko kolorearekin apaindu behar-ko lirake, adibidez, tapizerian, altzarietan eta osagarrie-tan grisa eta urdin grisaxka erabiliz. ■



ZURE ETXEA, ZURE NORTASUNA

Zure etxea atsegin eta eroso bilakatzen lagunduko dizugu.
Kalitatezko altzariak eta atsedeneko produktuak eskainiz, zure espaziora egokitutako
irtenbideak jarriko dizkizugu eskura.

Hartu hitzordua eta jaso arreta pertsonalizatua!

BIJOTA

Altzariak eta atsedena

25 URTE ZUEKIN. BIHOTZEZ, ESKERRIK ASKO!

Landeta hiribidea, 6 • AZPEITIA • 943-15 18 44 • 680 56 31 88

www.bijotaaltzariak.com



2025EKO LOREA ETA LANDAREA EZAGUTU NAHI?

Aurten etxean falta ezin zaizkizun lore eta landare onenak jakinarazi dituzte adituek. Jarraian irakur daitezke zerrendaren gorenean diren bien gaineko zertzeladak.

Modaren edo dekorazioaren munduan gertatzen den bezala, lore-zaintzan adituek urtez urte arrakasta gehien izango duten landareen eta loreen berri ematen dute. Beraz, landare berriak erosteko aitzakia bila bazabiltza, hona hemen 2025. urtean gogokenak izango diren loreen eta landareen gaineko azalpen batzuk.



KIBUC Azpeitia




DISEINU ESKLUSIBOAK, KALITATEA ETA ATENTZIO PERTSONALA

gureametsa@kibuc.com

Landeta Hiribidea 1, Azpeitia

Tel. 943-15 16 81

www.kibuc.com

jarrai gaitzatu   





Urrebotia

Itxura erromantikoa du, eta daukan dotoretasunak eta kolore aniztasunak (zuriak, melokotoi kolore leunak, arrosa, gorri-more biziak...) sortetarako, mahai zentroetarako eta lorategi apaingarrietarako aukera ezin hobe bihurtzen dute urrebotia edo ranunkuloa. Ikusgarriak dira lore horiekin sortzen diren sortak, baita beste lore askorekin konbinatuta osatutakoak ere. Larrosen antza hartzen du lore horrek, dauzkan petalo geruzei esker.

Urrebotiaren oinarritzko zainketak

Kokapena: landatu ezazu eguzki argiak gutxienez egunean sei orduz zuzenean jotzen dion leku batean, eta saihestu muturreko tenperaturak.

Lurra: ondo drainatutakoa den eta materia organikoz aberatsa den lurra behar du.

Ureztatzea: heze mantendu behar da beti, baina saihestu putzuak, tuberkuluak ustel ez daitezzen. Denboraldiaren amaieran, hostoak horitzen hasten direnean, murriztu ureztatpena.

Landaketa: landatu itzazu neguaren amaieran edo udaberriaren hasieran.

Ongarritzea: fosforoz aberatsa den ongarri likidoa bota loraldian, lore ugari ateratzeko.



MERAKI

estudioa

EGITEA GUSTATZEN ZAIZUN HORRETAN
ARIMA, BIHOTZA, SORMENA ETA
MAITASUNA JARTZEA AZTARNA UTZIZ.

BARNE DISEINUA, ERREFORMAK, PROIEKTUAK, OBRA ZUZENDARITZAK....

Ildefonso Gurrutxaga, 12 Behea
AZPEITIA
943-09 77 53
info@merakiestudioa.com
www.merakiestudioa.com

Sansebiera

Sansebiera da 2025eko landarea; izan ere, etxearen barrualdean edukitzeko ezin hobea da, duen erresistentziari eta hostoen dotoreziari esker (modu bertikalean hazten diren hosto luzeak, lodiak eta gogorrak ditu). Gainera, adituek etxean izatea gomendatzen dute, airea garbitzeko baliagarria delako –formaldehidoa eta bentzenoa bezalako toxinak kentzen ditu–.

Sansebiearren oinarritzko zainketak

Kokapena: sansebieiak nahiago ditu zeharkako argi distiratsua duten lekuak, nahiz eta argi gutxiko eremuak oso erraz onartzen dituen.

Ureztatzea: 2-3 astez behin ureztatu, eta utzi substratua erabat lehortzen ureztatzeen artean. Neguan, murriztu ureztatzea, hilean behin eginez.

Tenperatura: 15 eta 30 gradu arteko tenperatura izan behar du. Saihestu hamar gradutik beherako tenperaturak.

Lurra: ondo drainatutako substratua erabili, kaktusek edo sukulentuek behar duten gisan. Harea edo perlatxoa ere gehitu dezakezu drainatzea hobetzeko.

Ongarritzea: udaberrian eta udan, hilean behin eman sukulentuaren ongarri leun bat. Udazkenean eta neguan, berriz, ez da beharrezkoa.

Inausketa eta mantenua: kendu hosto lehorrak edo kalteak osasuntsu mantentzeko. ■





Tien21 ESNAOLA

Zerbitzuak:

- Etxetresna elektrikoak
- Argiteria
- Ingeniaritza proiektuak
- Instalazio elektrikoak
- Telekomunikazioa
- Eguzki-energia sistemen kudeaketa integrala
- Mantentze zerbitzua enpresan eta makineria industrialaren konponketa elektrikoak

Denda

Pablo VI, 3 • Tel. 943-08 03 55



620 93 36 07

esnaelek@esnaolatelecom.com

www.esnaolatelecom.com





Lantegia


Orendaundi, 6 (Landeta)


Tel. 943-15 09 02 • esnaolatelecom@telefonica.net


EZ DUGU ALTZARIRIK SALTZEN!



▶  Intimitatea eta maitasun txokoak sortzen ditugu

▶  Lagunartea eta harremanak sustatzen dakigu

▶  Atsedena errazten dugu

▶  Erantzunak eta konponbideak eskaintzen dizkizugu

Zure etxebizitza elkarrekin eraikiko dugu

Zure IDEE-iei FORM-a emango diegu

IDEE FORM





IDEAIFORM



LEHORTU ARROPA AZKARRAGO

Euria, hotza... direla eta, askotan ez da erraza arropa azkar lehortzea, etxean lehorgailurik ez baldin baduzu behintzat. Bada, ordea, finlandiarrek erabiltzen duten eta prozesua azkartzen duen metodo bat.



Bizkaia kalea 43 · ZARAUTZ
943 83 14 00
www.electricidaderne.com
comercial@electricidaderne.com



- Pabiloi berriak.
- Enpresetako instalazio berriak eta mantentze lanak.
- Ofizinak.
- Telekomunikazioak.
- Atezain - Bideotezain automatiko berriak eta mantentze lanak.
- Etxebizitza berriak, erreformak eta mantentze lanak.
- Komunitateetan instalazio eta mantentze lanak.
- Argiteri publikoa eta eguzki farolak.
- LED argiak eta erregulazioak (Push, Dali, 0-10v)
- Panel fotovoltaikoak eta auto kargatze azpiegiturak.
- Proiektuak eta buletinak.
- Ofizina teknikoak eta aholkularitza bertan.



LEHEN



ORAIN



Euskal Herria lurralde hotza eta euritsua da. Horrek ingurune berde ederra izaten laguntzen duen arren, baditu bere alde txarrak ere; adibidez, arropa aire zabalean lehortzea zeregin zaila izatea. Badira, ordea, horretarako leku okerragoakere: Finlandiaren kasua da horietako bat, han asteak pasatu baititzakete eguzki izpirik ikusi gabe. Neguan ia ez dutenez eguzkia ikusten, konponbideak bilatu behar izan dituzte arropa azkarrago eta modu eraginkorragoan lehortzeko.

Finlandiarrek neguan ere aire zabalean lehortzen dute arro-

pa. Kontraesana dirudien arren, finlandiarrek kanpoan zintzilikatzen dituzte arropa garbitu berriak, izozte bidezko lehortze sistema erabiltzeko. Izan ere, muturreko hotz eta haize baldintzetan, arropa bustien hezetasuna izoztu egiten da lehenik, eta, gero, poliki-poliki, lurruntzen joaten da, arropa lehortu arte. Arropa ez da erabat lehortzen, eta, horregatik, finlandiarrek arropa jaso eta ordu erdiz gela bero batean uzten dute, arropari falta zaion hezetasuna kentzeko eta erabat lehortzeko. ■






GAU-ARGI, S.L.

- ARGIZTAPEN DEKORATIBOA ETA TEKNIKOA
- ETXEBIZITZA ETA PABILOIEN INSTALAZIOA
- TELEKOMUNIKAZIOAK
- AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA
- INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK



**MERKATUKO MARKA
GARRANTZITSUENAK DITUGU**



MURGIL ZAITEZ LED-AREN ARGITASUNERA

Etxeko argiteria aldatzeko asmoa baldin baduzu, ez egin dudarik; alda itzazu argi guztiak LED sistemara. Aldaketa txikia izanagatik, onura asko eskaintzen ditu.



- Instalazio eta mantentze industrialak.
- Automatismok. Automatismoen mantentze-lanak.
- Etxebizitzak eta komunitateak.
- Atezain automatikoak eta telekomunikazioak.



605 72 07 01



ibelekmuntaiak@gmail.com

Nork ez du behar argirik etxean? Zalantzarik gabe, egunero erabiltzen dugun elementurik beharrezkoenetakoa da argia. Horregatik, garrantzitsua da aukera onenean inbertitzea. Izan ere, askotan, aukera klasikoena eta merkeena hautatzen da argiteria aldatzerakoan, baina, merkatuan dagoen bonbilla kopurua ikusita, LED (*light-emitting diode* ingelesez) sistemaduna erabiltzea da aukera onena.

Etxebizitzetan eta gela desberdinetan LED argiztapena izatearen abantailak anitzak eta oso garrantzitsuak dira. Energia aurrezteari buruz hitz egiten da beti, baina argiaren fakturan dirua aurrezteari buruz ere, baina LED argiztapenak zure etxeari emango dizkion abantailak eta onurak askoz ere gehiago dira.

Hona hemen onura horietako batzuk:

OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK
ETXESARRERAKO IRISGARRITASUNA HOBETZEKO TXOSTENAK
SEGURTASUN ETA OSASUNeko OINARRIEN AZTERKETA (EBSS)
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKO (ITE)

 **JON
ESNAOLA**
ARKITEKTO TEKNIKO

Azpeitia, Gipuzkoa
M. 647 65 45 06
T. 943-15 70 00
E. info@jonesnaola.eus
www.jonesnaola.eus

LED bidezko argiztapenaren abantailak

- Iraunkorragoak. LED argiztapenaren bizitza erabilgarria, gutxi gorabehera, goritasun lanparena baino 25 aldiz handiagoa da. LED argi batzuek 50.000 ordura arteko balio bizitza dute.
- Eraginkorragoak. Etxebizitzetako LED argiztapenak argiztapen tradizionalak baino %75 energia gutxiago erabiltzen du. Horrela, aurrezteaz gain, karbono aztarna murriztuko duzu.
- Malguagoak. LED bidezko argiztapena erraza da edozein espaziotan instalatzeko. Tiraderapean, horman sartuta, kolore desberdinetakoak, askotariko intentsitatetakoak eta estilotakoak, kontsumo txikikoak...
- Osasuntsuagoak. Bonbilla estandarrek ez bezala, LED argiek beren bero disipadorea dute, berrik ez dezaten eman. Argi ultramorarik ere ez dute sortzen –argi horrek larruzala kaltetu dezake–.



LED argiak aukeratzeko aholkuak

- Wattioetatik lumenetara. LED argiztapenak lumen intentsitatea edo distira neurtzen du. Gutxi gorabehera, 450 lm-tik (40 wateko bonbilla gori estandar baten edo 5 wateko LED baten antzekoa) 2.600 lm-ra bitartekoak dira (150 wateko bonbilla gori bat edo 26 wateko LED bat).
- Aukeratu tenperatura egokia. Kolore tenperatura, Kelvin gradutan neurtuta, aldatu egiten da: tonu hori beroa (2.700 K eta 3.500 K artean), zuri hotz eta leuna (3.500 K eta 5.000 K artean) nahiz eguneko argi distiratsua (5.000 K eta 6.500 K artean).
- CRIa begiratu. CRI indizeak adierazten du objektuen koloreak errealak nola ikusten diren argi artifizialak argitzen dituenean. 90 edo gehiagoko CRI altua duten LED argiek altzariak askoz ere politago ikustea eragingo dute. ■




azkuelek



DEKORAZIOA
ARGIZTAPENA
OPARIAK



Araba kalea, 41 (Eroski ondoan)
20800 ZARAUTZ
943-13 04 33



LURZORUETAKO AURTENGO JOERAK

Material nobleak eta ekologikoak izango dira protagonista, lurzoru eraginkorraz, gogorraz eta iraunkorraz gozatu ahal izateko.

Etxebizitza bateko lurzoruak oinarrizko funtzioa betetzen du. Euskarria izateaz haratago, berotasuna, erresistentzia, dotorezia, sofistikazioa eta abar ere eskaintzen ditu. Aukeraketa zuzena egiteak espazioa sendotu egin dezake, nortasuna erantsi ere bai, eta gelak handiagoak eta argitsuagoak birlakatzea ahalbidetu.

2025a urte zirrargarria da dekorazio ideietarako. Lurzoruen kasuan, joera izango diren hainbat aukera proposatu dituzte, eta jarraian dituzu horien gaineko azalpenak.



ainhoa etxaniz estudioa
barneen diseinatzailea

proiektuak
dekorazioa
obra zuzendaritza
altzari eta osagarriak



Julio Urkixo, 6 • AZKOITIA
943-85 09 73 • 669 92 24 58
nho@nhoestudio.com
www.nhoestudio.com

AGUR ZORU GRISEI

2025ean tonu ezta duten egur beroak dira garrantzitsuak, horiek erosotasun sentrazioa ematen dietelako espazio tradizionalei zein modernoei. Haritz beroek, beta sotilek eta akabera mateek sentrazio organikoa eta soila eskaintzen dute. Tonu argiagoa duen haritz zurituak oinarritzko elementua izaten jarraitzen du, baina, halaber, tonu ertaina duten marroiak eta lur tonu biziak itzultzen ari dira. Barrualde atseginak, errotuak eta naturarekin konektatutakoak nahi dituzte etxejabeek, eta tonu beroa duten zurek atmosfera hori sortzen laguntzen dute.

BOTANIKOAK ETA LOREEN DISEINUAK

Aurten, landareen diseinuak eta motiboak ikusiko dira alfonsuetan. Hain zuzen, tamaina handiko loreak, eta kolore ausarten, dibertigarrien, freskoen eta garaikideen konbinazioak ikusiko dira. Horrelako dekorazio proposamenak oso ondo geratzen dira etxea antigoaleko altzariekin apainduko baldin bada; izan ere, iraganeko etxeek nolabaiteko garrantzi estetikoak ematen zieten zoruei. Orain, berriz ere, presentzia hartu dute.

Loreen diseinua duen alfonsuetan batek 70eko hamarkadako estilo zaharkituak irudikatzen ditu, baina loreek ez dute zertan kurtsiak izan behar; ilunak eta dramatikoak ere izan daitezke, eta aldi berean, dotoreak. Lore diseinu terminoa oso anitza da; izan daitezke distiratsuak eta deigarriak edo txikiak eta sotilak. Horrenbestez, loredu alfonsuetan bat jartzea izan daiteke patrioiak edo ereduak sartzeko modu bat.





REFORMAS EUGENIO



ERREFORMA OROKORRAK

Pintura
Aroztegia
Sukaldeak
Iturgin lanak
Bainugelak



JASANGARRIAK ETA BIRZIKLATUAK

Ingurumenarekiko kontzientzia lurzoruetara hedatzen da, eta, gaur egun, pertsona askok nahi izaten dituzte aukera jasangarriak. Kortxoak, banbua eta egur industrialak abangoardia dira, eta gero eta ohikoagoak dira zoru laminatuak. Izan ere, egur industrialdun lurzoruek erresistentzia bikaina eskaintzen dute beroaren eta hezetasunaren aurrean. Horrelako lurzoru bat aukeratu, denboraren joanari eutsiko dion eta familiaren zein ingurumenaren ongizatea bultzatuko duen etxe baten aldeko hautua egiten da.

EHUNDURAK DITUZTEN ALFONBRAK


Modan daude ehundurak dituzten edota ile motza duten alfonbrak. Ilean altueragatik eta kiribilengatik ezagunak diren alfombra horiek geroz eta erabiliagoak dira gama altuko proiektuak nabarmentzeko; izan ere, luxuzko espazioei sakontasuna, interesa eta dimentsioa gehitzen diote. Alfombra ehundurak eta ilearen altuerak joko dinamikoa sortzen dute, baita sakontasunaren eta inpaktu estetikoaren sentsazioa ere.





EITEN
AROSZTEGIA

egur lanak orokorrean



Zubizar kalea 2, Landeta | Azpeitia | 943-15 01 53



OHOL ZABAL ETA ESTRA LUZEAK

Gaur egun, barrualde zabalagoak eta luxuzkoagoak nahi direnez, geroz eta ohikoagoak dira ohol estra zabalak eta luzeak jartzea lurzoruetan. Halakoekin gela handiagoa ikusiko da, eta beraz, kontzeptu irekietarako-eta oso interesgarriak dira hala-koak.

Ohol handiek eta estra zabalek oso ondo funtzionatzen dute, batik bat, eremu irekietako lurzoruetan, espazioa bate-ratzen laguntzen dutelako, baina gela txikiagotarako ere au-kerak ona izan daitezke, sakonera gehitzeaz gain, zarata bisuala saihesten dutelako.

LUXUZKO BINILOZKO BALDOSAK

LVTak edo luxuzko binilozko baldosak gama altukoak diren marmola edota terrazoa imitatzen ditu, eta beraz, aukera ekonomikoa da. Lurzoru laminatuak eta LVTak jende askok aukeratzen ditu, batez ere egur naturalaren berotasuna eta ehundura kopiatzen duten diseinuak.

Iraunkorra da materiala eta mantentzeko erraza. Gainera, LVTa ezin hobea da jarduera handiko etxeetarako: haurren logeletarako, zerbitzuguneetarako eta nortasun pixka bat txertatu nahi den espazioetarako. Sukaldeko, egongelako edo jangelako zorurako ere balio du material horrek. ■



3000 m²-ko erakusketa, etxe guztia janzteko era guztietako altzari eta osagarriak, 40 urte baino gehiagoko profesionaltasuna, arreta pertsonalizatua eta beti



**KALITATEA PREZIORIK
ONENEAN**

eta deskontu izugarriak erakusketa aldaketagatik



Itziar gaina z.g. • Itziar • Deba

943-19 91 00 • endaneta@mueblesendaneta.com • www.mueblesendaneta.com

2025EKO BOST JOERA

Estiloa duen etxea nahi baldin baduzu, 2025ean lor dezakezu. Zure etxea dotorea eta eguneratua izango da, honako joera hauetakoren bat jarraituz gero.

2025. urtea joera berriz beteta iritsi da. Aipatzekoak dira gela koloretsuen itzulera, retro estetika, egur ilundun altzariak edo urteko kolorea izendatu duten mocha mousse. Zure etea polita eta estiloduna izan dadin, pausoak ematen hasteko garaia da. Diseinu joera batzuei jarraituz gero, berehala nabarituko dituzu hobekuntzak zure etxean. Kontuan hartu beharreko bost gako baino ez dira honako hauek.



SANTOS

1990. urtetik

20720 Azkoitia
943-85 08 01 • 609 66 97 45
www.uriasukaldeak.com
uria@uriasukaldeak.com

SANTOS SUKALDEEN BANATZAILE OFIZIALA AZKOITIAN



Lastaola
Ieihoak

- Isolamendu termikoa
- Isolamendu akustikoa
- Lapurreten aurkakoak
- Kanpo arotzeria eraikitzea eta jartzea
- PVC
- Aluminioa
- Mixtak
- ...





LUXU ISILA

Luxu isila terminoa duela bi urte hasi zen entzuten gizartearen esparru desberdinetan: moda, artea, dekorazioa... Orduetik, nahiz eta joerak aldatu eta eboluzionatu duten, mugimenduak irau du barne diseinuaren munduan.

Sinpletasuna lehenesten duen mugimenduak estetika dotore, fin eta sofistikatuaren lortzea du helburu nagusietako bat. Espazio lasaia eta harmoniatsuak, abegikorrek lortu nahi dira. Emaizta horretara iristeko, tonalitate neutroak, lerro zuzen eta zainduak eta giro garbiak funtsezkoak dira, nabarmenkeria handirik gabe.

OREKA MANTENTZEN DUTEN APALATEGIAK

Objektu asko eta nolabaiteko orekarik gabeko apalategiek espazioan zarata bisuala sortzen dute. Hala ere, apalak ondo zainduta eta ondo pentsatuta badaude, atseginak izan daitezke begi bistarako.

Emaizta are hobea izan dadin, simetria eta zentzutasuna konbinatu behar dira. Liburu horizontalak eta bertikalak, pieza txiki eta sotilak, sartu ehun naturalak freskotasuna bilatzen baduzu... Nolabaiteko zentzua eta oreka mantendu behar dute apalategiek eta bertan dauden objektuek.



KONFIANTZA, EROSOTASUNA ETA DISEINUA

Aingeru Kalea, 5
20720 AZKOITIA

943-54 08 86
669 41 40 25



AZKOITIAN EGINDAKO LAN BAT



KOLOREAREKIN INDARTU

Ustekabeko gorriaren teoriaren arabera, espazioren batean elementu gorri bat txertatzeak nabarmen hobetu ditzake gela horren itxura eta estetika. Hasieran ez duela konbinatzen dirudien arren, gelaren dekorazioa eta xehetasunak nabarmen-

du egingo dira kolorearen bitartez. Gorria tonu indartsua da, eta barne diseinuan espazioei energia eman nahi zaienean erabiltzen da. Horrenbestez, kolore ona da sofisticazioa, dinamismoa eta ukitu berezia gehituz monotoniarekin hautsi nahi baldin bada.

albizu

1964tik

2025era

ALBIZU PINTURAK ETA ETXE APAINKETAK



PINTURAK

Pinturetan aukera zabala

Servicolor makina behar duzun kolorea lortzeko

Arte Eder eta eskulanetarako gaiak

Olio-pinturazko eta akuarelazko margolanak, laminak...

APAINKETAK

Paper margotuak eta muralak

Oihalak, leihoak, kuxinak, tapizaketa lanak...egiteko

Alfonbrak, moketak, egur laminatuak...

Altzari osagarriak, proiektu eta erreforma lanak

'VINTAGE'AREN ITZULERA

Vintage eta retro estiloak itzuli egin dira. Nahiz eta antzekoak diren, bi estiloen arteko aldea zera da: piezak originalak diren ala ez da. *Vintage* altzariak duela hamarkada batzuk ekoiztutakoak dira; retro altzariak, berriz, gaur egun egiten dira, baina iraganeko estetika hartan inspiratutako diseinuekin. Nolanahi ere, aurreko hamarkadetako dekorazio esfera hori itzuli egin da 2025ean, eta altzarien, ispiluen, koloreen, azulejuen... bidez integratu txertatu etxean. Izan ere, *vintage* piezek izaera eta xarma emango diote gelari.



Sofa Urola



Berria



- Sofa eta atseden sistemen aukera handia
- Ohe artikulatuak
- Mota guztietako koltxoiak
- Igotzeko sistemadun aulki erlaxagarriak
- Kanape tolesgarriak



ARROSA MILLENIALA

80ko hamarkadaren amaierako eta 90eko hamarkadaren hasierako belaunaldiaren kolorea izan zen arrosa milleniala edo arrosa pastela. Nahiz eta tonu hori ez den inoiz erabat desagertu, 2024aren hasieran, dituen ezau-garriak tarteko, modan jarri zen berriro: izan ere, inguratzailea, garbia, alai eta xarma handikoa da. 2025. urtean, etxeen barrualdeetan murgilduko da bete-betean. ■

URBISTONDO MARGOAK

DEKORAZIOA ETA ERREFORMAK

MARGOAK - BERNIZAK - PAPER MARGOTUAK
ALFONBRAK ETA MOKETAK - PVC - MONTO MIX SYSTEM



MONTÓ
pinturas

sh

K P

SANTOS
MONTEIRO

la maison

ÉLITIS
Auteur & Éditeur

URRATEGI

dica

INTERIORISMO

barne diseinua





ERREFORMA INTEGRALAK
AZPEITIA | EIBAR



KONBINATU ONDO EGONGELAKO GORTINAK

Egongelari estiloa eta dotorezia erantsi nahi baldin badizkiozu, modan daude ehun naturalak eta lauak, kolore neutrodunak, nahiz eta kolore ausartak eta ez oso konbentzionalak ere sartzen ari diren poliki-poliki.

Artzubia, 6, behea-esk


Azpeitia

943-81 21 67

inmobiliaria@pildain.com



PILDAIN
Inmobiliaria



Egongelaren itxura aldatu nahi al duzu diru gehiegi gastatu gabe? Estreinatu gortinak. Abantaila praktiko ugari dituzte, hala nola pribatutasuna ematea, altzariak eta parketa zuzeneko eguzkitik babestea eta atsedenerako giro aproposa sortzea. Horrez gain, gelan dauden elementuak eta piezak nabarmentzen laguntzen dute.

Beraz, egongelan aldaketa egitea pentsatzen ari bazara, hona hemen kontuan hartu beharreko aholku batzuk.

Kolore argiak

Tonu neutro argidun gortinek jantziko dituzte aurten leihoak: lasaitasuna emateaz eta argia indartzeaz gain, espazioak handitzen dituzte. Zuriak, krema kolorekoak, beixak eta grisak dira aukeratutako koloreak.

Etixerako instalakuntzak
Argiteria
Bainuak
Sukaldeak
Lokalak

Izarraitz auzoa, 66 ● AZPEITIA
606 30 63 68 ● axkiola@gmail.com

axkiola
elektrikari lanak





Ehun naturalak

2025. urteko joerek ehun naturalen aldeko apustua egiten dute. Tonu neutrodun lihozko edo kotoizko ehunek giro bakeak eta harmonikoak sortzen dituzte. Lasaitasuna eta bakea transmititzen dute horiek, eta duten ehundurak, leuntasunak, konposizioak eta diseinuak gozamina eskaintzen dute.

Kargatuak eta maximalistak

Maximalismoa da 2025eko dekorazio joera nagusiena, eta beraz, gortinek korrante hori jarraitzen dute. Izan ere, gortinek mugimendua eta testura eskaintzen dute, eta ertzak leundu eta babestu egiten dituzte. Diseinu estanpatuak edo handiak dira modan, ehunduradunak; adibide izan daiteke belusa. Apaingarriak ere erabiltzen dira, hala nola grekak eta litsak.

Bakarrik edo estoreekin

Nahiz eta bakoitzak bere aldetik ondo funtzionatzen duen eta egokitze arazorik ez duten, gortinek eta estoreek binomio perfektua osatzen dute eta aurtengo joeretako bat dira. Gortinak eta estoreak ez dira apaingarri soilak; biek elkarrekin berotasuna areagotu, estilo dosi gehigarria eman eta argia iragazten dute, betiere intimitatea sortuz. Aukera asko eskaintzen dituzte. Bateragarriago izan daitezke biek antzeko kolorea baldin badute edo nolabaiteko kontrastea sortzen badute.

MIMA

ETXEKO OSAGARRIAK



Denda espezializatua da Mima. Mota guztietako gortinak, kuxinak, oherako oihalak eta altzarien tapizeria egiten ditugu neurrira. Gainera, oihalei zein behar teknikoei buruz behar duten aholkularitza osoa eskaintzen diegu bezeroei.

📍 Loiolako Inazio Hiribidea 21, behea
20730, Azpeitia (Gipuzkoa)

☎ 943-81 69 76 📞 645 00 50 65

✉ mima.denda@gmail.com 🌐 www.mima.eus 📷 @mimadenda

Koadroak, negurako

Bada neguarekin lotzen dugun estanpatu bat, baina baita udarekin eta itsasoarekin ere: koadroak. Tamaina guztietakoak daude modan, baina bereziki handiak eta eskoziar estilokoak. Koadrodun estanpatuak berotasuna eta etxe sententzia sortzeko gaitasuna du.

Gorputza eta irudia

Egongelako gortinak lehioa janzten du eta giroari plus bat ematen dio, bere funtzioa betetzeaz eta argia bahetzeaz gain. Horregatik, gorputza eta erorkera izan behar ditu, eta, jakina, behar adina oihal metro izan behar ditu.

Ehundurak

Hormak apaintzeko joeretako bat dira testura duten akaberrak. Horiek etxeko gainerako elementuetara ere hedatu dira; izan ere, aurten modan diren gortinen ehun askok akabera hori dute. Inguruneari zerbait gehigarria ematen diote horiek; adibidez, ziri itxurako marrazki batek dotoretasuna eta ikusgarritasuna eranstean ditu. ■





SEIN


**ZUK ETA ZURE ETXEAK
MEREZI DUZUEN GUZTIA**



**BURDINDEGIA
BRIKOLAJEA
DEKORAZIOA...**



Pinturak 

Giltzen kopiak, zerrailak 

Garbiketarako gauzak 

Baserriko tresneria 

Kolak, silikonak 

Industria hornidurak eta laneko arropak 

Margotutako papera 

Parketak 

Burdindegia 

Segurtasunerako laneko arropak 

Landeta hiribidea, 8 • AZPEITIA • 943-81 25 66 • 607 58 89 13
landetabrikodenda@hotmail.com • www.landetabrikodenda.com



BRIKOLAJERAKO BEHAR DUZUN GUZTIA,

OROPAL



OROPAL

Erabilera guzietarako pinturak

- OROPAL Paretak
- OROPAL Lurzoruak
- OROPAL Fatxadak
- OROPAL Teilatuak
- OROPAL Metala
- OROPAL Sabaiak



Egurrerako barnizak

- Altzairuak
- Lurzoruak
- Terrazak



PINTURAK ETA BARNIZAK

IRURENAGROUP
ADVANCED TECH COATINGS

www.irurenagroup.com





HIGIEZINEN SALMENTA / ALOKAIRUA

- Etxebizitzak
- Merkataritzako lokalak
- Pabiloiak
- Eraikuntza berriak...
- Etxebizitzen eraberritze integralak egiten dira
- Baserriak
- Garajeak
- Lursailak



Erdi kalea, 21 · AZPEITIA · 943-82 90 74
www.egurtza.com · www.inmoegurtza.com
info@egurtza.com · info@inmoegurtza.com

BAINUGELETAKO AURTENGO AZULEJOAK

Hiru oinarri nagusi izango dituzte 2025. urtean bainugeletan jarriko diren azulejoek: kolorea, forma eta patroia.

2024a kolorearen urtea izan zen diseinuaren arloan; 2025a, aldiz, erabaki ausarten urtea izango da. Izan ere, logeletarako paper margotu vintageak, sukaldeetako hori kolore biziak edota egongeletako diseinu handiak dira joera aipagarrienetako batzuk. Bainuaren kasuan, berriz, praktikotasuna lortzea da helburu nagusia, baina azulejuak indar handia dute espazio bat pertsonalizatzeko.

Aurten, beraz, mota guztietako azulejuak izango dira moda: forma desberdindunak, tonu bizidunak, tamaina handiko formatuak edota kokapen berezidunak.

Hona hemen 2025ean bainuetarako azulejuen artean joera izango diren zenbait ezaugarri:



Endañeta Zumaia

ENDAÑETAk
ez du saldu
bakarririk egiten,
arreta ere
ematen du

Cadena Estrella Azul
ELECTRODOMÉSTICOS

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8
943-86 16 94

Kolore ausartak

Bezeroak tonu neutroetatik urruntzen ari dira, eta, horren ordez, kolore sutuagoen edo biziagoen alde egiten dute. Tonu bitxiak dituzten paleta ausartagoen alde egin dute askok; urdin sakonak, terrakota eta hori ilunak, adibidez.

Ardo eta gorri-more tonuek, esaterako, bainu txiki bat atsegin bihurtu dezakete. Azken finean, bainu txiki bat atsegin bilakatu behar da handiagoaren sentipena sor dezan.

Berotasuna

Pertsona askok berotasun sentsazio handiagoa nahi izaten dute komunean. Azulejuek sentsazio abegikorra eman dezatela nahi izaten dute, urte luzez ikusi den apaindura gutxiko spa sentsazioaren ordez.

Horregatik, kareharria bezalako material natural gehiago ari dira sartzen bainuetan, marmol zuriarekin eta gris hotzarekin lortzen ez den bero naturala sortzeko.





KELEN

- BERRIKUNTZAK
- ITURGINTZA
- GASA ETA BEROKUNTZA
- KLIMATIZAZIOA
- AEROTERMIA
- GREMIOEN KOORDINAKETA



📍 ARANA KALEA 5, Azpeitia

☎ 631 94 73 05



Formatu handikoak

Formatu handiko azulejuak aukera bereziki eraginkorra izan daitezke junturak gustuko ez dituztenentzat eta itxura modernoa eta uniforme nahi dutenentzat. Juntura gutxiago izateak mantentze lanak errazagoak izatea eta bainua gutxiagotan garbitu zein desinfektatu beharra dakartza berarekin. Are gehiago, tamaina handikoak diren eta etenik gabeko patroia duten azulejuei esker, komun txikiek zabalagoak dirudite.

Bainu osoa

Hormetan eta lurrean azuleju bera erabiltzeak itxura ikusgarria, dotorea eta uniforme sortzen du. Teknika horrek jarraikortasuna eskaintzen du, eta horrela, ukitu modernoa eransteaz gain, espazio txikiek handiagoak dirudite. Bainu berdeak, adibidez, egokiak dira giro atsegina eta lasaia sortzeko.

Denda
eraberritu dugu!



Zeramikaren boutiquea

DECO-RAMIK

Azulejoak
Bainuko altzariak
Bainuko osagarriak

www.decoramik.com

 [decoramik_](https://www.instagram.com/decoramik_)

Loiolako Inazio Hiribidea 2, Azpeitia

943-81 48 22

decoramik@decoramik.com



Matea eta distiratsua nahastuta

Joera berrietako bat izango da bainugeletako esmalte matea eta distiratsua nahastea. Espazioari ehundura eta interesa eransteko modu bat da hori; sentsazio sotilagoa eta organikoagoa lortzeko, bereziki ausazko nahasketa gisa instalatzen denean. Onura gehigarri bat ere badute: esmalte mateak bikainak dira zoruetarako, irristagaitzak baitira.

Forma askotakoak

Zure bainugela berritu nahi baldin baduzu, espazioa gehiegi kargatu gabe, saia zaitez forma eta tamaina desberdinetako mosaikoak sortzen, esmalte bera duten azulejuak erabiliz. Edozein diseinu nabarmentzeko modu bikaina da, batez ere aurrekontua mugatua denean.

Estilo klasikoa nahiago baldin baduzu, ustekabeko ukitu hori modu diskretuan gehitzeko modu egokia da. Kolore horiak, adibidez, argitasuna, alaitasuna eta dinamismoa sortzen ditu.





X U A
Komponents

Joan XXIII, 7
20.730 Azpeitia

☎ 943 06 33 57
comercial@xua-k.com

www.xuakomponents.com



Altzarietarako eta Barne Diseinurako

OSAGAIAK



Altzarietarako eta Barne Diseinurako ideiak proiektu pertsonalizatuetan gauzatu ahal izateko soluzio aukera zabala eskaintzen dugu.

Profesional eta partikularrekin elkarlanean.


Ikus-entzunezko komunikazioa / Publizitate irtenbideak



LED PANTAILAK

Indartu zure mezua erabateko dinamismoarekin eta etengabeko eguneraketarekin

Espazioak ikus-entzunezko komunikazioa indartzen duten ingurune bihurtzen ditugu.



3D HOLOGRAMAK



Dutxatik haratago

Azulejuak dutxatik haratago eramateko joera gero eta maizago ikusiko dugu 2025ean. Bainuek, sinpleak diruditen arren, zaila da espazio horri diseinu elementu gehigarriak eranstea, funtzionaltasuna nagusitzen baita.

Lauzak dutxatik edo bainuontzitik haratago jartzean –konketaren atzean, adibidez–, gelaren izaera eta sakonera handitu egiten dira. Azuleju urdinak, adibidez, ezin hobeto gertzen dira zuriarekin kontrastean.



Bi bloketan banatuta

Kolore blokeen erabilera da aurtengo beste joeretako bat, batez ere hormetan. Diseinatzailerak kolore bat eta formatu bat erabiltzen dituzte hormaren erditik behera eta goiko aldera. Horrek sarkotasuna erasten dio espazioari, eta ideia horixe imitatu daiteke goian margotutako papera eta behean azulejuak jarrita. Beste aukera bat da dutxa bera nabarmentzea. Horretarako, aukeratu bainugelako gainerakoekiko desberdinak diren lauak. Giro lasiaren eta bereziaren sentsazioa indartuko duzu horrela. ■



IBAITA

Iturgintza, bainuko erreformak,
altzariak, dutxa-itxiturak, iturriak
eta osagarriak.



Gaztainpe 2 , 20800 Zarautz

943-13 24 93

ibaita@zarautz.com



- Sukaldea aldatzeko orduan **arreta pertsonalizatua** ematen dugu; azken tendentziak kontuan harturik, norberaren gustu edo beharretara egokitzen dugu eskaintza.
- Sukalde osoa aldatzea gehiegizkoa iruditzen zaizula? Soilik ateak aldatzearen **aurrekontua** egingo dizugu.
- Sukaldeko gaina soilik aldatzea nahi duzula? Ez dago arazorik; Dekton, Silestone, egurrezko gainak... Gehien gustatzen edo egokitzen zaizuen zer den **aztertuko** dugu.



Eta nola ez, etxetresna elektrikoren bat edo gehiago aldatu nahi dituzula? Dendan bertan ditugu era eta **marka guztietako etxetresnak**.



Eta nola ahaztu etxebizitza batean hain garrantzitsua den **ARGIZTAPENA**rekin?

Neurri ezberdinetako LED plafoiak, zintzilikariak, hankadun lanparak...

Zure sukalde, egongela edo logela nola argiztatu aholkatuko dizugu.



Julio Urkixo etorbidea 13, AZKOTIA | 943-85 19 61 | 660 65 31 23
info@larramendijauregui.com | www.larramendijauregui.com

 @larramendi_jauregui | 



LARRAMENDI JAUREGUI



LUKANAK,
ONURAK ETA ARRISKUAK

Etxebizitzetako sabaietan jartzen diren leihoak dira lukanak. Zehazki, etxeetako teilatueta edo sabai altuak dituzten geletan jartzen dira, argiztapen handiagoa lortzeko.

Eraikinetako sabaien azpian geratzen diren espazioei erabilpena emateko teilatuan integratzen diren leihoak dira lukanak. Lekua eta espazioa irabazten laguntzeaz gain, argia eta airea sartzeko ahalbidetzen dute; beraz, elementu interesgarriak dira. Gainera, produktu aurrefabrikatuak dira, eta jartzeko errazak.

Baina zeintzuk dira lukana bat jartzeak eragiten dituen onurak eta desabantailak?

Hona hemen horietako batzuk:

- Teilatupeetan jartzeko prestatuta daude, eta arotzeriaren eta forjatuaren artean zigilu ezin hobea bermatzen dute.
- Teilatupea ez ezik, etxe osoa aireztatzeko aukera ematen dute.

Erreminta pasibo onak dira etxebizitzaren barrualdeak girotzeko, aire beroak gora egiten baitu, eta, beraz, goialdean irekidura bat badugu, goranzko aire korronea sortzea lortuko dugu.

- Lukanek etxeetan argi gehiago sartzeko aukera ematen dute. Horrelako leiho baten orientaziorik onena iparraldekoa da.

- Argi naturalarekiko esposizioak ondorio positiboak ditu osasunean. Lukanak eragin positiboak ditu aldarrean eta loaren patroietan.

- Diseinuari dagokionez ere, balio gehigarria ematen diote espazioari; puntu fokal bihurtzen dira. Luxuzko hobekuntza gisa hartzen dira, eta edozein espazio bizigarriaren kalitatea eta balioa hobetzen dituzte.




Bestalde, abantailak arazo bihur daitezke lukanetan honako kasu hauetan:

- Oso garrantzitsua da leihoaren eta forjatuaren artean zigilatze perfektua bermatzea. Horrelako hutsuneek eragiten duten arazo handienetako bat da ur galtzeak eta hezetasuna sortzea.

- Eguzkiaren erradiazio handiegia gainberotzea eragin dezake; oso garrantzitsua da lukanetan pertsianak edo beste edozein elementu jartzea eguzkiaren erradiazio handiegi hori kontrolatzeko.

- Leiho horiek leku garaietan daudenez eta batzuetan oso irisgarriak ez direnez, mekanismoren bat ezarri behar da leihoa ireki eta gela aireztatu ahal izateko. ■



LEIHOAK.com
eta toldoak



www.leihoak.com

943 002 275 - 619 432 079

leihoak@leihoak.com

Leihoen eta toldoen erakusketa Zelai Ondo 23 | **ZARAUZ**

2025EKO SUKALDEAK, ZURITIK HARATAGO

Orain arte sukalde zuriak izan dira izarrak, baina aurten, beste joera batzuk ere moda-modan datoz, eta zuriekin batera, horiek ere izan daitezke etxeetako aukera nagusiak. Azken joerak ezagutu nahi?



Ez dago dudarik: sukalde zuriak dira askoren aukera nagusia. Izan ere, kolore zuriak argia, berotasuna eta dotoretasuna ematen dizkio sukaldeari, eta horiek ez dira denbora jakin batera mugatzen. Gainera, etxeko gainerako altzari eta koloreekin bat egiten dute beti. Hala ere, sukalde zuriak beti modan egongo diren arren, 2025. urte honetan beste mota bateko sukaldeekin partekatu beharko dute horiek lehen lerroa.

Urtero aldatu egiten dira joerak, baita sukaldeak diseinatzeko moduak ere. Eta 2025a ez da salbuespena izan. Aurten berrikuntza ugariarekin dator sukaldeen diseinuaren mundua; berrikuntza eta estiloa uztartuz, espazio paregabe bat lortzen laguntzea da adituen helburua.

Soiltasunarekin irabazi

Ikuspegi minimalista gailenduko da 2025ean, eta horrek nabarmenkeria alde batera uztea esan nahi du. Simpletasuna eta praktikotasuna oinarri dituen estetika bat bilatzean oinarrizten da ikuspegi hori.

Altzariak nola jartzen ditugun, sukaldean zer xehetasun jartzea aukeratzen dugun... aurten erabaki horietan minimalismoa eta sotiltasuna izango dira nagusi. Horrekin lortu nahi dena da simpletasuna eta praktikotasuna islatzen dituzten espazioak sortzea, inpaktu bisual ateporala, estetikoa eta iraunkorra lortuz.

Etxetresna adimendunak

Etxetresna elektriko adimendunak funtsezko elementuak dira urte honetan, eta hala izango dira etorkizuneko sukaldeetan ere. Gailu berritzaile horiek sukaldeen maila hobetzen dute; horien funtzionalitatea aprobeztatzeaz gain, teknologia aurreratuek ingurumena zaintzen laguntzen dute.

Gaur egun, merkatuak etxetresna elektriko adimendunen aukera zabala eskaintzen du: ke kanpaiak, garbigailuak, hozkailuak eta ontzi garbigailuak, esaterako. Gakoa da dituzun beharretara, aurrekontura eta gustuetara ondoen egokitzen direnak hautatzea.





Berezi

Reformas - Berrikuntzak

Landeta auzoa
Atxubiaga kalea, 5-behea

AZPEITIA

943-81 37 95

reformas_berezi@outlook.com

Erreforma integrala

- + Teilatuak
- + Fatxadak
- + Estalgarriak
- + Sukaldeak
- + Bainugelak
- + Logelak
- + Egongelak
- + Altzarien diseinua
- +++++



- + Igeltserotza
- + Zeramikak
- + Altzariak





Material iraunkorrak

Egur birziklatua eta entzimeren jasangarriak izango dira izarrak 2025ean. Sukalde ederra izatea nahi dutenentzat ez ezik, ingurumenarekiko konpromisoa ere kontuan hartu nahi duten pertsonen aukera gogokoenak izango dira horiek.

Entzimeren kasuan, berriz, 2025ean sukaldearen diseinuaren mundua konkistatuko duen joera nagusia harri iluneko entzimerena izango da. Gainazal horiek, elementu funtzional soilak izateaz harago, gustuko estilo adierazpenaren aldarria ere izango dira, eta sofistikazio bereizgarria txertatuko dute sukaldean. Giro moderno eta abangoardista edo estetika klasikoagoa bilatzen baduzu ere, entzimeren horiek egokitu egiten dira molde horietara, luxuzko ukitua eta fintasuna gehituz sukaldeari.

Azulejo geometrikoak

Joera honek paretaren dekorazioa ikus-teko modu berri bat dakar, horiei ukitu garaikidea eta bisualki zirraragarria erantsiz: patroia ausartak, lerro garbiak, diseinu psikodelikoak... Azulejo horiek sukaldeko protagonista bihurtuko dira, hormak benetako artelan bihurtuz.



INAKI
sukaldeak cocinas

SUKALDEAK


Hegoalde 8 (Eroski ondoan)
943-83 52 57
ZARAUTZ

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

San Frantzisko 3
943-83 49 60
ZARAUTZ

www.inakisukaldeak.com
cocinas@inakisukaldeak.com



 Cadena Estrella Azul
ESTRELLA AZUL

Espazio irekiak

Espazio irekien aldeko apustua egitea gero eta ohikoagoa da azken urteetan. Gero eta jende gehiagok nahi du sukaldeak eta egongela espazio bakar batean atontzea, eta horrek norberaren behararen arabera espazioa moldatzeko aukera ematen du.

Joera berri horrek erabat eraldatu du sukaldeen antolaketa, eta lotura handiagoa sortu du sukaldearen eta etxebizitzako beste espazio batzuen artean. Sukalde irekiak etxe barruko jardueraren epizentro bihurtu dira, eta zabaltasun eta batasun sentipena ematen dute.

'Vintage' elementuak

Espazio irekiekin gertatu bezala, duela urte batzuetatik areagotu egin da dekorazioan *vintage* elementuak sartzeko joera. Baina aurrean, inoiz baino indartsuago dator joera hori, bereziki sukaldeetan. Retro elementuak, pieza klasikoak edota estandarteak bakarrik sar ditzakezu, eta berezitasun eta berotasun ukitua lortuko duzu. Etxetresna elektrikoetatik hasi eta iraganeko garaiak gogorarazten dituzten apaingarrietaraino, eman xarma sukaldeari. Horrelako piezak lortzeko modu onena azoka txikieta edo bigarren eskuko dendetara joatea da.







Lorategiak

Sukaldean freskotasuna eta naturako elementuak sartzea da 2025eko joeretakoa bat, tonu berdeen eta lorategi bertikalen bidez. Sukalde moderno eta funtzionalak izango dira, baina askotariko landarez apaindutako paretekin. Lorategi bertikalek sukaldeei ukitu freskoa, berezia eta paregabea ematen diete, eta, gainera, landareak jartzeko aukera eskaintzen dute.

Urre koloreko txorrotak edo beltzak

Kanila beltz mateak aurrerantzean ere sukaldeetarako aukera ohikoena izaten jarraituko duen arren, urre koloreko txorroten presentzia ere nabarmen igoko da aurtan. 2025ean sukaldeetako harrasketako txorrotak urre kolorekoak izango dira, eta mota guztietako akaberak izango dituzte: matea, satinatua... Urre kolorea, beraz, funtsezko elementu bihurtuko da sukaldeetan giro dotorea eta eroso sortzeko. ■



Sagasti

LEIHOAK



ZERBITZUAK

- Era guztietako leihoen eta itxituren instalazioa: PVC, aluminioa, RPT
- Aluminiozko armairuak • Baranda • Eltxo-sareak • Pertsianak • Konponketak

Eusko Gudaria, 7 · 20810, ORIO · 943-13 00 77 · sagasti@sagastileihoak.com



BINILOZKO ALFONBRAK INDARREZ DATOZ

Binilozko alfonbrak azken joeretako bat dira dekorazioaren munduan. Nola erabili ez badakizu, ordea, hainbat ideia ditugu etxea apaindu eta espazioa atseginago egin ahal izateko.



artilan
a l f o n b r a k

Neurrira egindako alfonbrak
Binilozko alfonbrak
Alfonbra tradizionalak

San Frantzisko, 8 • ZARAUTZ

943-13 10 59

www.artilanalfonbrak.com



Binilozko alfonbrak lurrean jartzen diren material horretako panelak dira, eta gelari itxura guztiz berria ematen diote. Gainera, oso iraunkorrak dira denboran, pertsonalizatu egin daitezke, beharrezko neurrira egokitu, eta, ginga bezala, oso erraz garbitzen dira. Arrazoi gehiago behar al dituzu joera honekin bat egiteko?

Honako hauek dira binilozko alfonbrek dituzten ezaugarri nagusiak:

- PVCz eginak daude, eta, beraz, oihalezko alfonbrak baino askoz erresistenteagoak dira. Material horren abantailako bat da alfonbrak praktikoak eta moldagarriak direla. Gainera, urte osoan egon daitezke jarrita, temperatura mantentzen dutelako eta hotz eta bero isolatzaileak direlako.
- Erraz jartzen eta kentzen dira, oso arinak dira eta leku gutxi behar dute. Gainera, ez dute itsasgarririk, eta ez dira lurrera itsasten. PVCa, gomazkoa denez, ezin hobeto atxikitzen zaio lurrari, eta ez da mugitzen.
- Malguak, erresistenteak, iragazgaitzak, irristagaitzak eta garbitzeko errazak dira.
- Hipoalergenikoak ere badira, eta, beraz, ezin hobekak dira haurren geletarako. Gainera, oso egokiak dira animaliak bizi diren etxeetarako, urarekin eta xaboiarekin garbi baitaitezke.

Binilozko alfonbra batek hamaika aukera eskaintzen ditu etxebizitza bateko gelak eta txokoak apaintzeko: sarrera, sukaldea, balkoia, egongela edota logelak.





Oikia auzoa, z/g - 43. pab · ZUMAIA

www.desin-lan.com · desin-lan@hotmail.com

615 75 75 09 · 943-14 33 07



Betiko alfonbrak

Tradizioaren eta betiko alfonbren aldekoak ere gustura egon daitezke: izan ere, badira sei alfonbra mota oraindik modan jarraituko dutenak. Honako hauek izango dira:

1. **Pertsonalizatuak.** Dimentsioak, koloreak edo patriiak pertsonaliza daitezke, eta horrek kontsumitzaileei eta diseinatzaileei beren gustu eta beharretara egokitutako diseinu bakarrak sortzeko aukera ematen die. Pertsonalizazioari esker, gure espazioa gure nortasunaren benetako adierazgarria bihurtuko da.
2. **Geruza desberdinetakoak.** Alfonbra ezberdinak konbinatu eta pilatuz gero, sakontasuna lortuko duzu. Hainbat tamaina, ehundura edo marrazkitako bi alfonbra edo gehiago beharko dituzu espazioari dinamismoa eta interesa emateko. Trikimailu soil honekin sakontasun eta berotasun gehigarria lortuko duzu edozein txokotan.
3. **Patrioi eta forma ausartetakoak.** Pieza deigarriak maitate badituzu, aukeratu formatu handiko estanpatu ausartak. Estanpatu psikodelikoak dira urteko joera berritzailea.
4. **Kolore harrigarriak dituztenak.** Espazioaren gama kromatikoaren barruan dagoen kolore baten alde egin ezazu, baina saturazio askoz nabarmenagoarekin, eta espazioari kontrastea emango diozu.
5. **Testura ezberdinetakoak.** Erosotasunaren kontzeptua beste oinarri sendo bat da 2025ean, eta horretarako zer hobe ehundurak nahastea baino? Adituek diote testurak egoki konbinatzeak erosotasunean eragiten duela.
6. **Jasangarriak.** Tindagai naturalak eta ekoizpen iraunkorak dituzten alfonbrak indarrez sartu dira 2025ean, hala nola artilezkoak. Material naturala eta berriztagarria da, eta iraunkortasuna, leuntasuna eta berotasuna eskaintzen ditu. ■




LARRAMENDI
MILAR

Zuretzat pentsatutako eta
egindako sukaldeak

Häcker
kitchen.germanMade.

oo bastidasukaldeak

